

# Algeriako auzia

BOURGES-EK BAINO HOBEKI

Algeriako auziaren gainean lerraturik, Félix Gaillard-en gobernu ez zaiku itzulipurdika lurrerat erori.

Lau hatzegoi ez dugu er hautsean ikusten, bainan bai traka-traka, bere bidean politikoa ibilki.

Ageriako auzia ez zai oian Gaillard jaunari, Bourges-Maouny minichro ohiari bezala, lerrakor eta hilkor!

Jalgi da atxekatik karramasko bat gabe, izatekotz azkartua, ...izaitekotz pichkortua: iragan irriskua, harentzal zaldare!

Ukan ditu gehiotsuen bozak, salbu (bichtan da) komunitik, poujadis eta Mendestiarrenak: lehenak bethi maztuz; bigerrenak bethi marro-koska; hirugarrenak eztena mehail eta shichtadun.

Soustelle, Algeriako gobernadore ohiak ekarri dio Gaillardere bere baia, holakorik nehorrek ez baitzuen asmatzen ahal.

Bainan denek onhartzen duten hitzak ez duke gauza handik erran nahi; irabazteren duena hedaduraz, galtzen du ginharriz; izena zabalago, izana hertsitago.

« Loi-cadre » hori eder da; bizkitartean ni beldur, paperetik legea jauts-araztearekin gizonen arterat, ez direnetz lehen bezala hasiko oihuka, batzu: « Sobera urrun zoaze! », eta berteak: « Ez zirete aski urrun joaite! ». Charitu baino gehiago da auzia ichildu.

## ITCHINDIAK

Ezen haste-hastetik eta buru-bururaino, auzia ozka beraean dago.

Baditu hamar urthe ginaukala auzia hor piziuko, hor suminduko zela, ez baginuituen, sortu aintzin, itchindiak barreatzen.

Haur ahal gisa aurkitu ditugu jendeak, sartu girelariak Algerian, Tunizian, Marokan eta berdin Indochinan.

Guk arthatuz, eskolatuz, orduko haur horiek bilhakatu dira gizon lerdan: ez dute gehiago nahi haurtzat atzik ditzagun, ez baitira gehiago haurrak.

Nehor ez da aski azkar, ithurriari erraiteko: « Ago hire zilhoan! », are gutiago hasteko kechu-kechua ibaiari: « habil basanga hire mendi aska tegirat! ». Nehor ez da, haurrak haur begira ditzazkenik.

Bainan bertzalde, badira milion batz goiti frantzes, Algeria, beren lanaz, beren izerdiaz, beren googo, eta frangotan beren odolaz aphaindu baiitate, hiriak, landak, mahastiak ezartzen zituztelako iriz arti iguzkitara.

Er litake aise, denak utzi nahi lituzketen frantzes batzueri ihardesta, oraiko menda ez balitz, denen ontasunak denak bat nahi dituen mende berrira. Gitarrik trenkatzea eta berechtea, gurezat bezenbat kalte litake Algeriarentzat; guk gal eta hark gal. Hura eta gu, berdin petzaro.

## LEHEN URHATSETIK LANDA...

Hitz beraean tente gaude.

Heldu zaizkigun izurriteak jaunten zaizkigu, aski goiz ez baitugu bizi-molde berri bat chutik ezzari.

« Loi-cadre » horren urhatsa, gure iduriko, urhats beharra, bainan lehen urhatsa horren ondofik, horri esker, bertza batzu egin beharko baititugut, baikearen itzul-aratzeako Algerialat.

Bethikor bazterkari Mendes-France jaunak sakatu dio botza kontra, ziolariak holako lege ergelak jeus ez zuela balio.

Gutitarrik ez jeseztaratz bida eremu.

Orok badute haste bat, eta « loi-cadre » gabe, hasterik ez ginuen.

Ni nago, legeaz bezain ez zenetz Mendes-France je'sos, berak maite zukeen alkian Gaillard jarririk ikustea.

Gero, Sostellek aphasago mintzatza hobe lu-keela, hortan arrunt ahortz niz; ezen, espantu guti egin zauken jaun horrek Algerian, eta habel haundiak izan balitz, ez ginuen soldado igortzerik uka-nen!

Lehen urhatsa... Hautsi-mautsi bat egin ditake Europa gurekilar uztartuz. Algeria eta Afrika Eu-ropearen hede azkar batzuez lothuz...

Hortzatzen ez bagira, ainkritz elke eta mokoka erabiliren dituze elgarren artean deputatuek; bainan guk guti emanen behari, Algerian baitira gure haurrak, eta hango zera dir-dir uredinaz gure bihotzak arrangura!

SO EGILEA.

## « OLDARRA » A PARIS



Voci des danseurs et danseuses du groupe folklorique basque « Oldarra » sur la scène du Théâtre de l'Etoile à Paris ; le cliché, hélas ! ne rend pas le chatoiement des couleurs.

## ORTZONA

JOERIA — OREN  
ZILHARKERIA

Hauta handia prezio komunitone, guzietan batzao, ezkontzentzat

L. ARTÉON

11. Orbe karrikan  
BAIONAN

NOUVELLE SERIE

N° 383

PRIX: 15 FRANCS

Abendoaren 5-ekoia

Jeudi 5 Décembre

1957

# MERRIA

JOURNAL BASQUE FRANÇAIS HEBDOMADAIRE

## ABONNEMENTS

8, rue Jacques-Laffitte, BAYONNE

Un an: France ..... 700 fr

Etranger ..... 1.000 fr.

Directeur: P. LAFITTE.

Administrateur: A. OSPITAL

Téléphone: 502.20

C. C. Postaux 1281.32 BORDEAUX

## PUBLICITE

Petites annonces (la ligne) .... 50 fr.

Locales ..... 40 fr.

Rubriques diverses ..... 50 fr.

## Hotza Frantzian

Bet-betan astelenean, hotzak berriz ere egin du beihala arras gogorrak: ikatza eskasarekin ezin berotua zuten hainitz jendek.

Heldu diren egin hotzaten ez omen da ikatza falatuko: jadanik milion tonaka bildua dute holetan ikazketariak: haatik, hotz izanen diren guziek ukane othe dute ikatzen sariak nahi duen sosa? Hori bertzerik da, eta girichtinoek behar dugu hortaz oroitu.

## O.N.U.-ko biltzarrean

### Rusia Frantziari erasiaka Bertze gehienak maltso

R.N.U. erresumaren biltzarrean mintzo dira Algeriaz.

Rusiak dio Frantziak batean lanjerrean ezartzen dueña, eta ez du hitz aski borritzik haren kontra: joan behar omen luke frantzesek Ipar-Afrikatik denen oneitan: soldadoek holetan ez

dute sukarrak zirkatzen bai-zik!

Anglesek eta Belgikan oke diote Algeriak baduena oraino frantzen behar gorria; eta arrotz erresumek ez dutela sudur sartzerik Algeria-ko auzian.

Bertze askok hitz-erdika gauza bertsua dalauek gura.

Le President COTY s'est rendu au Shape en visite officielle. Assis, de gauche à droite : le General NORSTAD, commandant suprême des Forces de l'Atlantique ; l'Air Marshal de la R.A.F.B.A. CONSTANTINE (plans et opérations) ; le President COTY. Debout de gauche à droite : les généraux français de REYNIES (organisation et entraînement) ; R. TISSIER (logistique) ; GAZIN (plans et politique) ; GAZOUNAUD, représentant permanent de la France au SHAPE.

## DONOSTIATIK

Nere lankide ori:

Autem ere, gureztako zo-riagaitoz, bi sinu txarrela iragarri digute « Euskeren garuna »: euskeren bera-ren bizerria makala eta euskaltzaleon multsukeri eta anarkia guzizkoak.

Ala da, bai. Eta ala de-lako erdiratu zaigu biotza gure izkuntza zaarra maite dugun guzioi.

Gaitz larria, ba, eta sen-dakaitza, barrena estutzen digun au: Azkeneraño bide egoki bat bilatzen saiarazik gaitu gaitz lazgarria.

Nik, alegia, bein eta be-tirik bide onehik abiaturik egiaz aurrera gaitezen esperientzia zertan dauden guziaz galdua ba-nu, ez nizuke oraingo guzti au idatziko; denbora al-perrick xautza izango bailitzak. Bañan, ain zuzen,

zearo aldreibes pentsatzen dut; eta itzeginaz eta alkár ezagutuaz uste baño asekaz geiago egin ditekelakoan nago. Eta siñiste onetxek bultzatua, zugana nator, zerba-tetarako izango delako uste-tan.

Eta nekatu etzaitudalako, aalik eta laburrena azalduko dizkituz nere puntu nagusi batzuk. Au da nere asmoa: zuk aztertu ondoren, zertan etzauden konprome esan dia-zaidazula, eta zertan bai, eta zergaitik. Orrela alkarrerekiko artuemanita ezaguera asiko ditugu; eta, Bidenabar, gure-diferentziak zertan dauden guziaz galdua ba-nu, ez nizuke oraingo guzti au idatziko; denbora al-perrick xautza izango bailitzak.

Onatz puntuak:

## EUSKERA ETA EUSKALTZALEAK GAUR

Euskeria bera da, jakin, euskaltzunaren mamia. Euskeria erauzita, euskaltzalea sunak ez luke sentidurik. Ortaz, euskeria bera da euskaltzaleazunaren jatorria eta elburua.

Baña euskeria, euskaldunen izkuntza alegia, ez da gauza nator, ez lizaki generoan bezeroa, ezta ifola ere aukera-dezakengun gauza; baña or, kalean, baserrian, eta gure istorian zein, ots, gugandik erat, eratu den gauza bat bai-zik.

Gaurko euskeria, alabaña, oso eskastuta dago; eta beret-aran ez da gai egungo munduan bizirik irauteko.


Gaitu egin bear da beraz, indartu, gaurkotu. Eta euskeraren jasotze edo eraberitze ortarako euskaltzaleak bear dira.

Eta ba dirudi, leen esan dudan, premiazko dela euskera euskaltzaleak baño. Banan, ondo begiratu ezke-ro, eta bere aultasun ortaz oroiturik, gauza bat ikusiko degu: euskeria jaso eta ger-tatu bear dela, bai; eta or-reqaitik beragaitik, gaur gaukozko bereziki, eginkizun premiazkoena euskaltzalee fiñak gertatzeko dela. Ez da, izan ere, pizugao edo importanteago; baña bai er-tiagio, eta aurrelikako.

Euskaltzale pizkor eta ondo ikasiak gabe, egin du euskerarenak.

Seqida hirugarren olaman

## LE PALAIS DES NATIONS UNIES



Abendoaren 5-ekoia

Jeudi 5 Décembre

1957

## CHURCHILL: 83 ans



L'ex-Premier britannique,  
WINSTON CHURCHILL à fêter  
son 83e anniversaire

## Bazinakiten?

Mozku hiria Jatsu baino handiagoa da, pochi bat. Pentsa ba! Baditu lau militu zortzi chun eta berrogoi ta - zappi mila Mozku: hiri hortako eskoletan mila gazte: 35.000 errent, 31.811 mediku, i 33.000 injenioru.

Cure jaun Aphezpiukarras gogoko ditu bai gure mintzaire chaharra, bai gure ohidurak, eta berak erranik badiagu zoin atchikia den eskuarazko katichimari haurrendak.

Bazterretan jendea kechu da ezanza goiti ari dela, preziot. Bana bertze, hamahiru ilabete funtan ehunarentzat 38 libraz kariotu da. Ez da harritzeko askok Es-painiatiik ekartzen badute ere.

LES ENTRETIENS FRANCO-BRITANNIQUES

Malinovsky marchal ru-

Ongiak  
arrabots  
gutti  
Arrabotsak  
ongi gutti

Errana zuten prezioak heinean atchikiko situz-

tela. Bainan frantses dirua urtu dela oharteko, as-

ki da ikustea nola ureha goiti den ondoren astau-

tan. Frantses dirua tipituz geroz, prezioek behar

zuten nahi-tez emendatu. Eta huna, gobernaren

manuz nolakoak izanen diren.

- ELETRIKA: ehunarentzat lauez kariotzen da, aste hunen ondarrean.
- GAZA: berdin ehunarentzat 2-8-ez.
- TREINAK: bigarrenetan 9 %; lehenetan, 15 %; marchandizak, 10 %; horiek oro zonbat asteren buruan.
- AZUKREA: 10 % numbait han.
- CHERRIKIA: 30 liberaz kiloko.
- ZINEMA: 150 liberaz peko alkientzat, 10 % numbait han.
- PASTAK: 10 % numbait han.
- ERRECHIMETAK: 10 % numbait han.
- CHOKOLETA: 15 % numbait han.
- OGIA: 4 liberaz kiloko, bainan ez berehala.
- KAZETAK: hogei liberetan izanen dira.
- OTOAK: 4 % numbait han.

Bertzeak bertze alabainan!

Diote Peng-Ten-Huai ma-

rechalak ilabette bat baino adichikideri arma saka eta saka, munduak jakin behar du, ez duela Rusiak beha egon gogo: harek ere bere aldekoerri emanen diote zer nahi tresna, eskuetan izan dezaten zertaz ihardets, ata-katuak balire.

## Chinako armad

